

CAF eta «tximeleta efektua»

Koldo Sagasti

Azkenaldian saiatu al zarete, adibidez, bizikleta berria erosten? Berehala ohartuko zineten ezinezkoa dela. Hornidura falta dela-eta hemendik hiru urtera arteko guztiak salduta daude jada. Vietnamen ekoizten diren osagaien eskasiak eragin du Europa Ekialdeko herrialderen batean muntatzen direnen beherakada eta, zeharka, egoitza soziala Gasteizen duen enpresa bat eskaerari aurre egin ezinik geratu da. Zenbaitek «tximeleta efektua» deitzen dio fenomeno horri, alegia, merkatua bezalako sistema dinamiko-kaotiko batean aldaera ñimiño batek, tximeleta baten hegada balitz bezala, denboran eta espazioan anplifikatu eta urakana eragin

dezake antipodetan. Ikusi besterik ez dago nola munduko bazter batean mutazioa pairatzen duen birus baten ondorioak planeta osoan sumatu daitezkeen ordu gutxiren buruan. Mundua gero eta txikiagoa da eta herri urrunen arteko elkarreragina gero eta estuagoa. Horregatik, gero eta ohikoagoa da enpresa batek munduko eskualde batean duen jokaerak beste eskualde bateko bere jarduna baldintzatzea, areago enpresa horrek nazioarteko joko taulan jokatzeko badu.

Ez dira gutxi planeta osoan diharduten euskal konpainiak, eta zenbait giza eskubideekiko gutxieneko begirunea ere erakusten ez duten erregimenetako merkatuetan. Adibiderik nabariena CAFena

dugu. Beasaingo trengintza konpainiak Jerusalem Ekialdeko kolonia ilegalak hiri-buruarekin lotuko dituen trenbidea eraikitzeke lanetan dihardu. Nazioarteko legediak espresuki debekatzen dio indar okupatzaile bati ilegalki okupatutako eremuak azpiegitura iraunkorrez hornitzea, eta hain da nabaria proiektuaren ilegaltasuna, ezen kontratua esleitzeko lehiaketako beste hautagai guztiak erretiratu egin ziren prozesutik.

Ikuspegi estrategiko murrizta dute CAFeko zuzendaritzako arduradunek, Palestinan darabilten jokabidea bueltan etorriko ez zaiela pentsatzen badute. Hango tximeleten hegoen astindua ere goizago edo beranduago zirimola bilakatuko zaie. •

Eta bezperan esan izan balute...?

Xabier Izaga
Gonzalez

Euskal preso politikoei kartzelatik ateratakoan noizik behin egiten zitzaizkien ongietorriak edo zertarako makulu gisa erabiltzen zizuten hainbatek aste honetara arte, klima aldaketaz nahiz covid-19az mintzatzean. Astelehenean, presoek jakinarazi zuten ez dutela ongietorri publikorik nahi. Ez dute esan gaizki iruditzen zaizkiela, ezta ondo ere, ez dutela nahi baizik. Eta ez da izango.

Horixe eskatzen zuten bezpera arte hainbat alderdi politiko eta elkartek. Berandu iritsi da, baina. Presoek komunikatua bezperan argitaratu izan balute, garaiz iritsiko zen? Eta berandu iritsi de-

nez, berdin die ongietorri publikoak egiten jarraitzeak?

Ez, ez zatekeen nahikoa izango. Zertarako nahikoa, ordea?

Duela hamarkada bat arte erakunde armatu bat existitu zen. Urte askoan esan zioten armak utzi behar zituela. Gero erakutsi zutenez, baina, erakunde hark armak uzterik ez zutelako nahi eskatzen zioten armak uzteko. Izan ere, erakunde hark armak utz zitzakeen zantzuak sumatu zituztenean, lehenenak egin zituzten halakorik ez gertatzeko, eta armak entregatu nahi zituenean, beste horrenbeste. Desegin zenean oso pozik zeudela esan zuten amorruek aurpegiera

desitxuratuta, baina ez zela nahikoa, eta ez direla gatazka bateko bando bi izan, talde mafioso bat eta demokraziaren eta legearen aldekoak baizik.

Demokrazia eta legea ez dira gauza bera baina, edonola ere, demokraziaren aldeko horiek ere urratu dituzte legeak beren demokrazia horrek ematen dien zigorgabetasunaren jakitun.

Etikaz hitz egiten dute, baina interes politiko makurren arabera jarduten dute. Etengabe pausoak eskatzen dizkieten pausoen erdiak emango balituzte, benetako politika egin liteke, politika ez baita ezinezkoaren artea, ezta artea ere, posible dena gauzatzen ahalegintzea baizik. •